

EUSKAL AEko KANPO-MERKATARITZAKO PREZIOEN INDIZEA (UBI), 2012KO 1. HIRUHILEKOA

2012ko lehen hiruhilekoan esportazioen prezio unitarioak %2,7 igo ziren urte arteko tasan

Inportazioen prezioen igoera, aldiz, handiagoa izan da, %11,5

2012ko lehen hiruhilekoan Euskal AEko bai esportazioen, bai inportazioen prezio unitarioak, Balio Unitarioaren Indizeetan eta urte arteko tasetan neurtuak, igo egin dira, Eustaten datuen arabera. Baina inportazioetan (% 11,5) esportazioetan (%2,7) baino igoera handiagoa izan da.

Hiruhileko hau aurrekoarekin alderatuz gero ikusten da inportazioen prezio unitarioek gora (%4,9) egin dutela eta behera (%-0,9) esportazioenek.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta. 2012ko Lehen hiruhilekoa. (%)

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	-0,9	2,7	4,9	11,5
Kontsumo-ondasunak	1,6	3,7	-1,1	2,2
Kapital-ondasunak	-2,5	1,6	1,6	4,5
Bitarteko-ondasunak	-0,9	3,0	5,5	12,9

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Xede ekonomikoaren arabera sailkapenari begiratuta ikusten da Euskal AEko esportazio-prezioaren urte arteko tasa positiboa izan dela ondasun mota guztientzat. Kontsumoko ondasunetan %3,7ko hazkundera dugu, Bitarteko ondasunetan %3koa eta Kapital ondasunetan %1,6koa.

Euskal AEko Bitarteko ondasunen inportazioen prezioaren urte arteko tasek izan dute igoerarik handiena (%12,9); gero, Kapital-ondasunek (%4,5) eta Kontsumo-ondasunek (% 2,2).

Gure ondasunak esportatzen diren **eremu geografikoak** aintzat hartuz, lehen hiruhileko honetako esportazio prezio unitarioak, lehengo urteko hiruhileko beraren aldean, %4,7 hazi dira Euro-eremuan eta %4,8 27-EBn. ELGAN prezioen hazkundera %3,7 izan da; Munduko gainerakora doazen esportazioen prezioak %0,5 jaitsi dira.

Inportazioetan ere gorakako joera izan dute prezioek, batez ere Munduko gainerakotik datozenetan (%14,6) eta ELGAtikoetan ((%9,8). Euro-eremuan (%6,2) eta 27-EBn (%7,0), baita ere igoerak.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, geografia-eremua aintzat hartuta. 2012ko Lehen hiruhilekoa. (%)


	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	-0,9	2,7	4,9	11,5
Euro eremua	-0,9	4,7	1,9	6,2
EB-27	-0,7	4,8	2,2	7,0
ELGE	-0,8	3,7	2,9	9,8
Munduko gainerakoa	-1,1	-0,5	7,3	14,6

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Aurreko hiruhilekoaren aldean, esportazioen prezio-tasek behera egin dute zertxobait eremu geografiko guztietan, Munduko gainerakorakoak nabarmen (%-1,1). Gainerako eremuetan, prezio jaitsierak Euro-eremuko %-0,9 eta 27-EBko %0,7 artean dira.

Inportazioetan kontrakoa gertatzen da, prezio-igoerak eremu guztietan. Munduko Gainerakoan (%7,3) igo dira gehien; ELGAN %2,9, 27-EBn %2,2 eta Euro-eremuan %1,9.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak. Urte batetik besterako tasak (joera)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Kanpo-merkataritzako Prezioen Indizeari \(UBI\) buruzko prentsa-ohar gehiago.](#)

[Euskal AEko Kanpo-merkataritzako Prezioen Indizeari \(UBI\) buruzko datu-bankua.](#)